

# BAI, AMERRI BAKARRA

## BAI, AMERRI BAKARRA

Alderdien gainetik, etsaien artetik  
Populu zuhur honen hizkuntza txukuna,  
Europako lehena, denen ondasuna,  
Jaiki hadi plazara, Bernaten hitzetik.

Berozan familia, lano guzien petik,  
Susta berriz herria, bila batasuna,  
Eta presondegitik ekarran laguna,  
Bakean bizi hadin haurren ezpainenetik.

Hirekila gaudela lumaz, obraz, elez,  
Eskola, telebista, liburu, kazetan,  
Irratian, karrikan, herriko-etxetan.

Goretsiko haunagu lanez eta legez,  
Ofizialki deituko mundutar dantzara.  
Bai, Amerri bakarra hi haunat euskara!

*Hitzak: Jean-Louis Davant*

*Musika eta moldaketak: Igor Telletxea*



# GOITI ETA BEHEITI

## GOITI ETA BEHEITI

Goiti eta beheiti banabilazu ni beti.  
Libertitzen ere huneski ene gazte laguneki,  
Ene gazte laguneki, nahiagorik zureki.

Herbia doa lasterrez ihiztariaren beldurrez.  
Herri huntako neska gaztiak hurturik daude nigarrez,  
Hurturik daude nigarrez, ezkont ez diton beldurrez.

Arraiñak eijer begia, oi neskatila faltsia.  
Xoriño batek erran zerautan biga bostetan egia,  
Biga bostetan egia, zu ez zinela ania.

*Herrikola.*

*Moldaketak: Iñaki Diagusaz*



# BAKE BIDEAN

## BAKE BIDEAN

*Bakezaleenak ere  
Bere baitan bizi du  
Bere gerra.*

*Bakezaleenak ere  
Gerra baten zama  
Bere baitan bizirik  
Betiro darama.*

*Ahotsa : Andoni Salameiro Alberdi*

Itxuraren jokua  
Izanik nabari  
zalantzan bagabiltza  
Euskaldun ugari  
Ahalaren harian  
Ezina dantzari  
Soka-tira gorrian  
Ari eta ari.

Barrenean oihu bat:  
"Aupa! Ekin lagun!  
sugar biziã piztuz  
Lan horretan jardun  
Kemenari men egin  
Arituz ahalduen  
Bakea bera dadin  
Bihurto bakaldun.

Ez beza mesfidantzak  
Barrua izoztu  
"denak orain"-ak ere  
bihotza mingostu,  
Liskarraren aiztoa  
Behar da kamustu  
Elkarriketa bera  
Ez dadin zapuztu

Indarkeriak berak  
Darion kiratsa,  
Gogoa gaiztotzen du  
indargetuz hatsa.  
Izan ezina dena  
Behar dugu altxa  
esanak dezan isur  
Izanaren patsa.

Zuhur, zintzo (elja zuzen  
Herrenka-herrenka,  
Bide bat erditzen da  
Oihu (elja auhenka,  
Bakea bakarra da  
Ez gaiztaten tenta  
Gizabidez dezagun  
denok errespeta.

*Hitzak: Andoni Salameiro Alberdi  
Musika eta moldaketak: Mixel Ducau*

# LEHEN, ORAI, BETHI



## LEHEN, ORAI, BETHI

Lehen, orai eta bethi  
Ni bizi naiz penatuki.  
Zoren eta baitugu  
Amodioa berri.

Etxian eder erramu,  
Etxeko alabak erran du.  
Nahi badu ezkondu,  
Noiz-nahi du ordu.

*(Aita Donostiak Ainhoan bildua 1941an)  
Herrikoia.  
Moldaketak: Itaki Dieguez*

## NEURRIAK

Ahal banintu  
Itsasoak itsasoeri  
Mendiak menderi  
Ibarrak ibarri  
Harriak harri  
Bezala

Ahal banintu lotu  
Herriak herri  
Eskualdeak eskualderi  
Probintziak probintzietz  
Gure Euskadin

Ahal banintu nahasi  
Xuberoarrak Bizkaitarrekin  
Ahal banintu nahasi  
Lapurarrak Nafartarrekin  
Alabatarak Gipuzkoarrekin  
Euskaldunak kanpotik etorriekin

Ahal banintu  
Koloreak kolorekin  
Urak beren urekin  
Haizeak haizekin  
Sasoinak sasoinekin  
Bezala

Ahal banintu lotu  
Herriak herri  
Eskualdeak eskualderi  
Probintziak probintzietz  
Gure Euskadin

Ahal banintu nahasi...  
Ez litaie ez handi mandirik  
Ez litaie ez xuri gorririk  
Aberats pobrerik poliz gizonik  
Presondegirik auzitegirik  
Gure Euskadin

*Hitzak: Maitex Erdozainzi Exart  
Doinuak: Piar Paul Berzeliz  
Moldaketak: Itaki Dieguez*

# NEURRIAK

# OIHANIAN

## OIHANIAN

Oihanian zuñien eijer  
Txorriño bat khantari  
Eskualdün arbolari  
Zazpi probintzier !  
Amodio dio gazter  
Eskuarari bethi esker  
Jarraiki aiten ürhatser  
Ez sekulan bazter  
Ez deia xarmagarri  
Nuri ez dü plazer  
Txori bat khantan ari  
Eskualdün aurhider ?

Oi txoria ! hanixetan  
Zurekilan batian  
Bozkarioz kantatzia  
Nian desiretan.  
Sarñü gira plazeretan  
Egün plaza eder huntan  
Nahiz bozkario ezari  
Eskual bihotzetan.  
Hots ! anaei maitiak,  
Bandera eskietan  
Eskualdünak beikira  
Nausi güzietan.

*Hitzak eta musika: Etxahun Iruri*



# BAKE MINA

## BAKE MINA

Gizadiak maite-mina,  
Izadiak arreta-mina,  
Etorkinak herri-mina,  
Herri hunek bake-mina.

Laborari ta langile,  
Sinestedun ta bilatzaile,  
Bidez-bide, kalez-kale,  
Izan gaiten bakegile.

Zatiketak etsipena,  
Elkarketak itxaropena,  
Gorrotoak pairamena,  
Barkamenak askapena.

Solasbide, elkarbide,  
Maitabide ta askabide,  
Zuzenbide, bakebide,  
Oro dire zorianbide.

*Hitzak: Peio Ospital*

*Musika: Irlandar herrikoia*

*Moldaketak: Itxaki Dieguez*

*(Renaud frantses kantariaren bertsiotik abiatutik)*

## NORAT JOAN

Norat zoaz, neska gaztea,  
Hain ilunikan begia ?  
Norat hoa, mutil gaztea,  
Nai duka nik erraitea ?

Xoraturik ezarri haute,  
Plazerra ez dela kalte...  
Erori duk hire mundua,  
Eta orai haiz galdua !

Norat doa gure mundua  
Hain ardura uzkailea ?  
Norat doa, hartu bidea  
Hain ardura bihurtia ?

*Hitzak eta musika: Manex Pagola*

*Moldaketak: Itxaki Dieguez*

# NORAT JOAN



# NERE MAITIA,

## NERE MAITIA, JEIKI TA JEIKI

"Nere maitia, jeiki ta jeiki, ez al-zerare loz ase (bis)  
Zure ondotik gabiltzan hauek ez baigrade loale,  
Ideki zazu bortaño hori, adiskidiak gerade.

Ez dizut bada nik idekiko gau ilunian aterik (bis)  
Barnean dagonak ez baidaki kanpokoaren berririk.  
Atoz eguna argitzen denian, egongo gera elgarrekin.

Bihar goizian etorritzeko urrun bizi naiz, maitia ! (bis)  
Xakurra saingaz hasitzen bada, nork egingo du bakia ?  
Harrekikua nik egingo det, arren, etorri zaitia.

Hona etorri dama gaztia, erran zenidan bezela. (bis)  
Ongi etorri, galant gaztia, neronek nai nuen horla,  
Hitz bi gustora egin ditzagun, pasa zaitia salara."

Salara joan ta kutxan eseri, begiratuaz elgarri. (bis)  
"Inposible da ez zaituela Ama Birjinak ekarri  
Beti-betiko hartu nazazu penaren kontsolagarri."

*Herrikoia: Juan Mari Berasategi-ren gamik hartuak (Oihartzungo kantu zaharrak).  
Moldaketak: Iñaki Dieguez*

# JEIKI TA JEIKI

## IZARREI BEGIRA


Pentze batean etzanan naiz,  
Leku gordean, iratze artean,  
Zeruari so, isiltasunean,  
Lokartuko naiz izarrei begira.

Gaur goizero bezala istorio berdina,  
ametsetan nintzela etorri oreña,  
ihesi urrundu da oroitzapena,  
herritik joana naiz hemen baitut lana,  
hortako idazten dut gordetzeko pena,  
gaur goizero bezala bihotzeko mina.

Hiri ezezaguna, biztanle arrotza,  
karrika ilunduak, beti haize hotza,  
ta ni hemen bakarrik, ezin hartuz hatsa,  
noiz arte irauenen du, hau ez da ametsa.  
Berriz itzuli nahi dut, ez naiz bate untsa,  
hiri ezezaguna, bizimodu latza.

*Hitzak: Arantxa Hirigoin  
Musika: Philippe Albor  
Moldaketak: Iñaki Dieguez*

## IZARREI BEGIRA



## EUSKALDUN-ERDALDUN ?

*Xalbadorrek:*

Hizkuntza baten menturan dena, murrizt gelditzen da egun, hartatik bertze zorbaitio ere ahalaz ikas ditzagun; bat edo bida ez laizke gaizki etor gurearen lagun, bainan lehenik eta non nahi izan gaiten gu euskaldun.

Nihaurek ere nik konprenitzen ditut bi mintzaira arrotz, mintzatu ere egiten ditut behartua naizen oroz; horiek hola ni euskarari nago bihotzez ta gogoz, ez ederraren gatik bakarrik, bainan gurea delakotz.

*Amets Arzallusek erantzuna:*

Aberats nahiak pobretzen gaitu, espantu nahiak umiltzen, kukurrukua ikusi baitut txantxangorria isiltzen. Gure mintzaira bihotzekoa, orain ez dut konprenintzen: hain eder eta hain gure, eta, nola erdaldundu nintzen?

Guretzat bizi ezin zuenez guregatik "hil zedila!" Ene Xalbador, asmatu duzu, ama haurrek dute hila. Geroztik gure etxe hitsetan soineko huts bat dabila gorputzak ere aldegin zion bihotz galduaren bila.

*Hitzak: Xalbador / Amets Arzallus*

*Musika: Pantxo Carrère*

*Moldaketak: Iñaki Dieguez*

## LAGUNT ABERTZALEAK

## LAGUNT ABERTZALEAK

Batzuk Jainkorik gabe, besteak fededun, Denak alor berean uztarriko lagun, Abertzale guztiek lan egin dezagun, Euskal-Herria egin dezagun euskaldun.

Abertzaleak gara, ez dugu gordeko, Zazpiak-Bat baitugu Herri bakartako. Giderrak noiz dituen eskutan hartuko, Horren alde gara gu beti xutituko.

*Leloa:*

Berma, abertzaleak, Euskadiren alde:  
Zuen borroka ez utz bezetan dealde!  
Bozka, abertzaleak, Euskadiren alde:  
Euskal-Herria ez utz laguntzarik gabe!

Euskal-Herria berriz egin behar dugu, Haundikiak baitira hartaz baliatu. Gure mintzaira dute beti mespretxatu, Aitamen lurra laster arrotzari saldu.

Zer eskatzen ote du gaur Euskal-Herriak  
Eta partikulazki euskal gazteriak?  
Herrian bizi zeko lantegi berriak!  
Nork ditu eraikiko, ez bada Herriak?

Lana Herrian eta Euskara plazara,  
Erroietarik libre laborari-lurra,  
Herriko gobernua Herriko-Etxera  
Eta Euskadikoa guztien menara.

Langile, laborari, populu guztia,  
Sozial asmu berri bat da gure nahia,  
Horri buruz baturik gaitzen abia,  
Tresnako harturik gaur autonomia.

*Hitzak: Jean-Louis Davant*

*Musika eta moldaketak: Iñaki Dieguez*